

la perfumería

de Mercadona

2020KO UDA

AZAL- KONTUA

JARRAITU
GURE BEAUTY
GIDALIBURUARI,
ETA IKASI ZEURE
BURUA ZAINTZEN

AKTIBATU ZURE ESKUAK

MANIKURA
URRATSEZ
URRATS
GLAM
AZAZKALAK

SORTU

Moda

EGUZKITIK
BABESTEKO
BEHAR
DUZUN
GUZTIA



SPORT WATER
ACCION
960



AURKIBIDEA

4 SORTU UDA

Gozatzeko garaia da, zure azalari eta eguzkiari errespetua erakutsiz. Sortu uda, zu eta etxeko txikiak zainduko zaituzten produktuak eta haiek aplikatzeko modurik onena zein den ikasiz. Presta zaitetz beltzaran-kolore ederra hartzeko eta ilea osasuntsu mantentzeko. Gainera, eguzkitik babestuko zaituzten oinarrizko *tipak* zein diren kontatuko dizugu.

14 HILEKORAKO KOPA

Nola erabiltzen da? Nola garbitzen da? Zenbatean behin aldatu behar da?

16 AZAL-KONTUA

Aurtengo udan, azalaren zainketa da gure *beauty* ohituren benetakoa protagonista. Nork bere burua zaintzeko unea da. Giltzarriak: produktu egokiak aukeratzea eta jarraitutasunez ematea. Mimo-gogoal!

28 AKTIBATU ZURE ESKUAK

Azazkal eta esku zainduak asko esaten digute pertsona bati buruz; gure aurkezpen-txartela dira, eta, horregatik, xehetasun guztiak zaindu behar ditugu.

33 SIRENA-EFEKTUA

Kolore-leherketa bat: urdin bizia, koral distiratsua, arrosa kartsua eta hautseztatua... Aurtengo udako manikura distiratsua eta koloretsua da. Egin bat "sirena-efektua" joerarekin, eta erakutsi azazkalak harro.

34 FRAGRANCE BAR

Berezko esentzia izateak nortasuna ematen du. Oraindik zurea ezagutzen ez baduzu, ausartu zaitetz etxean lurrin-mostradore bat sortzera.

Argitaratzailea: MERCADONA SA
Fuente del Jarro industrialdea
Ciudad de Liria, 5 46988 Paterna / Valentzia
Egilea: Ediciones ELCA
Inprimatzailea: Jiménez Godoy Lege-gordailua: TO-0789-2008

Aldizkari honetan agertzen diren produktuak Mercadonaren produktu-aukera estandarri dagozkie. Espazio-arazoak direla eta, baliteke inoiz produkturen bat ez aurkitzea. Arren, galdetu gure langileei. Doako alea; debekatuta dago saltzea edo merkaturatzea.

© Aldizkariaren titularrak MERCADONA SA da.

Eskubide guztiak erreserbatuta daude. Debekatuta dago aldizkaria baimenik gabe erabiltzea, osorik zein partzialki, eta/edo erreproduzitzea, bai eta markak eta/edo logotipoak erabiltzea ere.



SORTU

Uda

Gozatzeko garaia da, zure azalari eta eguzkiari errespetua erakutsiz. Sortu uda, zu eta etxeko txikiak zainduko zaituzten produktuak eta haiek aplikatzeko modurik onena zein den ikasiz. Presta zaitez beltzaran-kolore ederra hartzeko eta ilea osasuntsu mantentzeko. Gainera, eguzkitik babestuko zaituzten oinarrizko *tipak* zein diren kontatuko dizugu.



- ✓ ZENBAT
PRODUKTU APLIKATU?
- ✓ TXIKIENTZAT...
- ✓ AFTER SUN
- ✓ BRONTZE-AROA
- ✓ EGUZKITIK BABESTEKO
OINARRIZKO TIPAK
- ✓ ILE OSASUNTSUA
EGUZKIPEAN

Garrantzitsua da, halaber, zure azalarentzat egokia den babesak aukeratzea eta behar bezala aplikatzen jakitea.



*Gogoa
izan*

Produktu gutxiago erabiltzeak asko murriztu dezake babesak.

ZENBAT PRODUKTU APLIKATU?

Babes-motaren eta eremuaren arabera. **Eguzki-esnearen** kasuan, komeni da gutxienez 2 hatz krema ematea babestu beharreko gorputz-eremu bakoitzeko, eta gutxienez hatz bat krema aurpegian.

Espraien kasuan, 12-15 lainoztatze egin behar dira gorputzean, babestu beharreko eremuaren arabera, eta gutxienez 6 aurpegian.

Aerosolak zuzenean ematen dira azalean, modu jarraituan, gorputzeko atal bakoitza estali arte.

Ondoren, eskuaz zabaldu, xurgatu arte. Aurpegian, ez lainoztatu zuzenean; lainoztatu eskuak, eta zabaldu produktua begien ingurua beti saihestuz.

Mercadonako Lurrindegiko eguzki-babesak testura batean baino gehiagotan daude, azal-mota guztien beharretara egokitzeko.

ERABILTZEKO AHOLKUAK

- ✓ Eguzkitan jarri baino 30 minutu lehenago eta kantitate egokia eman, eta ondo zabaldu.
- ✓ Arreta berezia izan sudurrean, belarrietan, sorbaldetan, garondoan eta oinbularretan.
- ✓ Eman berriz bi orduetik behin, batez ere udan edo azalaren egoerak hala eskatzen duenean, bainatu ondoren, izerditutakoan edo eskuoihal bidez lehortutakoan.



Solar Stick
Gardena, 50+
faktorekoa



Eguzkitako Solar
Gel Gardena, 50+
faktorekoa



Aurpegirako
Solar fluidoa,
50+ faktorekoa,
adinaren aurkakoa.



Beltzarantzeko
Solar Olioia, 30
faktorekoa. Ukitu
lehorra



Eguzkitako Solar
Espraia, 50+
faktorekoa

TXIKIENTZAT...

Haurren azala delikatuaz denez, babes eta zainketa bereziak behar ditu. Txikientzat, babes-faktore oso altuko produktuak erabiltzea komeni da, urak kentzen ez dituenak, eman errazak eta txikien larruazala ondo zainduko dutenak. Eman berriro eguzki-babesa bainatu ondoren.



Haurrentzako Solar Espraia, 50+ faktorekoa



Haurrentzako Solar Crema, 50+ faktorekoa, aurpegirako eta gorputzerako, larruazal sentikor eta atopikoetarako berezia

AFTER SUN

Egun bat eguzkitan eman ondoren, garrantzitsua da after sun bat erabiltzea. Dutzatu ondoren, azala gozatu, hidratatu eta berritu egiten du, eta beltzaran-kolorea luzatzen lagundu. Bereziki egokia da aparteko onurak dituelako: erredura-sentsazioa arintzen du, eta hidratazio-maila egokia itzultzen dio zure azalari, eta, gainera, kaltetutako zelulak leheneratzen ditu.

After sun gela, Aloe vera duena



Gomendinoa

After suna hozkailuan sartzen baduzu, indartu egiten da egun eguzkitsu baten ondoren ematean duen ahalmen freskatzailea.



BRONTZE-AROA

Ez dago azal-tonu on bat bezalakorik itxura eder eta osasuntsuagoa izateko.

Autobeltzarantzaileak, ondo erabilia, konponbide ezin hobea izan daitezke eguzkia hartzeko astirik ez dutenentzat edo nekez beltzarantzen direnentzat.

- ✓ Gogoratu autobeltzarantzaileek ez dutela eguzki-iragazkirik.
- ✓ Esfoliatu aurpegiko eta gorputzeko azala autobeltzarantzaileak erabili aurretik; haien efektua indartuko duzu, eta tonu argitsuagoa eta iraunkorragoa lortuko duzu.
- ✓ Garbitu ondo eskuak aplikatu ondoren, eta ez jantzi ondo xurgatu arte.
- ✓ Lehen emaitzak 2 ordura ikusiko dira.
- ✓ Aplikatu berriro, tonua areagotzeko.



Gorputzerako esne autobeltzarantzailea.



Autobronz toallatxoak



BABES TXIKIA

Larruazal oso beltzaranentzat bakarrik, **Solar Espraia, 6 faktorekoa**. Babes txikia ematen du, erraz aplikatzen da, koko-lurrin atsegina uzten du, eta oporretan gaudela irudituko zaigu.

la perfumería

SORTU
Uda



Babestu egin behar dugu eguzkitik, urteko 365 egunetan

Erradiazio ultramoreak beti eragiten ditu kalteak, ez udan bakarrik. Hala ere, garai honetan erradiazioa biziagoa da, arropa gutxiago janzten dugu eta ordu gehiago ematen ditugu eguzkitan.

Ez dago sekreturik; azala polita, argitsua, orbanik eta zimurrik gabea izateko, zaindu eta babestu eguzkitik. Eguzki-babes egokia, adierazitako esposizio-orduak, aplikatu beharreko produktu-kantitatea eta zaindu beharreko eremuak dira azala arriskuan ez jartzeko kontuan hartu beharrekoak.


✓ Hautatu zure larruazal-fototipoarentzako faktore egokia.



✓ Sendagai batzuek fotosentikortasun-erreakzioak eragin ditzakete; galdetu medikuari.



✓ Haurrek berariazko babes erabili behar dute.



✓ Hondartzan eta igerilekuan, urarekiko erresistentea den babes bat erabili.


EGUZKITIK BABESTEKO TIPAK



✓ Esposizioaren ondoren, eman after suna, azala leheneratzeko, gozatzeko eta hidratatzeko.




✓ Ur epelarekin edo hotzarekin dutzatzea komeni da, azala lehortu ez dadin.



✓ Maiz edan ura.

✓ Jantzi arropa eta osagarri egokiak ere: arropa argiak, kapela, pareoa eta eguzkitako betaurrekoak.



✓ Babestu zaitetz, halaber, kirola egiten duzunean edo kanpoan jarduerak egiten dituzunean, paseatzen zabiltzanean edo terraza batean zerbait hartzen ari zarenean.



✓ Ez egon denbora gehiegi eguzkitan, eta saihestu 12:00etatik 16:00etarako tartea.



la perfumería

SORTU
Uda

ILE
OSASUNTSUA
EGUZKIPEAN

Ez dezagun ahaztu ilea ere babestea. Eguzki-izpiek eta beroak deshidratatu, eta ahuldu egiten dute ilea, eta kolorea aldatzen diote. Gainera, itsasoko gatzak eta igerilekuetako kloroak ere lehortzen eta kaltetzen dute. Beraz, ez ahaztu aurtengo udan zure ileari eguzki-babes dosi egoki bat ematea.



Remedy Argan Oil

Uretan pasatu beharrik ez duen maskara; argan-olioa, jojoba-olioa, karite-gurina, keratina eta UV-iragazkia ditu.

Zertarako da?

Ileari bere itxura leun eta distiratsua berreskuratzen laguntzen dio. Gainera, egokitu eta aparteko elikadura ematen dio.

Nola eman

Ahal dela, erdialdetik puntetara, ilea heze dagoela. Ile lehorrarekin ere erabil daiteke.

Be Radiant seruma

Kamelia-olioa du, zure ilearen distira naturala indartzeko eta politago eta osasuntsuago mantentzeko.



Zertarako da?

Ilea distiratsu, leun, egokituta, akabera naturalarekin eta mugimenduarekin uzten du, laztea ekiditen du, errazago orrazten laguntzen du, UV-iragazkia du eta babesle termiko gisa jarduten du.

Nola eman

Beharren arabera erabil daiteke. Ilea egokitzeko, errazago askatzeko eta haren distira indartzeko, hobe da ilea heze dagoela ematea; egin 2-4 sakatualdi eskura, eta erdigunetik puntetara zabaldu, sustraia saihestuz. Ez dago urarekin kendu beharrik. Laztasuna kentzeko, leuntasuna emateko eta argitasuna nabarmentzeko, ilea lehor dagoela eman; egin 1-2 sakatualdi, zabaldu modu berean, eta ez kendu urarekin.

Repair & Nutrition Instant Conditioner

8 agente zuzentzaile ditu:



- ✓ Keratina eta arginina, ile-zuntza indartzen laguntzen duten proteinak.
- ✓ *Nutrition plus* eta kabiarrak, ilea hidratatuta eta elikatuta egon dadin.
- ✓ *Silk extract* eta anbara, ileari leuntasuna ematen dioten osagaiak.
- ✓ E bitamina; propietate antioxidatzaileak ditu.
- ✓ Azido hialuronikoa; hidratatzeko ahalmen handia du.
- ✓ Eta UV-iragazkia.

Zertarako da?

Ile-zuntza konpondu, elikatu eta hidratatu egiten du, eta ileari distira, indarra eta zeta-ukitua eman.

Aplikazioa

Lehorrean eta/edo hezean aplikatzeko berehalako egokitzailea.

Hilekorako kopa

2 neurritan

M Erditze baginalik izan ez duten 25 urtetik beherako emakumeak.

L 25 urtetik gorako emakumeak edo erditze baginalen bat izan dutenak.

Hilekoa jasotzen duen sistema berrerabilgarria.

Nola erabili

Esterilizatu lehenengo aldiz erabili aurretik. Nola? Garbitu eskuak, jarri ontzi batean kopa estaltzeko adina ur, eta berotu. Irakiten ari dela, sartu kopa 3-4 minutuz.

12 ordu arteko babesa ematen du, etengabe aldatu beharrik gabe.

Nola jarri



1 Garbitu eskuak, eta jarri jarrera eroso batean.



2 Tolestu kopa (bi eratarata tolestu daiteke):

A - Sakatu aldeak elkartu arte, eta tolestu erditik U bat eratuz.

B - Jarri hatz bat koparen goiko ertzean, eta sakatu barrurantz triangelu bat osatzeko.



3 Sartu, eta, behin barruan dagoela, ireki egingo da, eta ezin hobeto egokituko da zure bagina-paretara.



12h → geroago...

4 Kopa ateratzeko, sakatu oinarria, atera eta hustu.



5 Husten dugun bakoitzean, komeni da ur epelarekin garbitzea eta komuneko paperarekin lehortzea. Garbitzeko, xaboi intimoa edo pH neutrokoa erabili.

7 Gaez eta edozein kirol egiten duzun bitartean ere erabil dezakezu hilekorako kopa.

6 Hilekoa bukatutakoan, hurrengo hilabetera arte gorde baino lehen, garbitu urarekin eta xaboi intimoarekin, eta, hobeto esterilizatzeko, irakin uretan.





AZAL- KONTUA

Aurtengo udan, azalaren zainketa da gure *beauty* ohituretako benetako protagonista. Nork bere burua zaintzeko unea da. Giltzarriak: produktu egokiak aukeratzea eta jarraitutasunez ematea. Mimo-gogoa!

CLEAN NOTES

Gaur egun, inoiz baino garrantzitsuagoa da higiena. Eguneroko dutxa garrantzitsuagoa bihurtu da, baina ez da komeni gehiegitan

dutxatzea, kanpoko agenteengandik babesten gaituen larruzalaren hesi-funtzioa ez hausteko. Bainurako gela aukeratzean, kontuan hartu behar ditugu gure larruzal-mota eta haren beharrak, gehien gustatzen zaigun eta sentiarazten gaituen lurrina...

Koko-lurrinezko bainu-gelak liluratu egingo zaitu duen usain bizia dela eta.

Fruta-lurrinezko bainu-gela, Mediterraneoko fruta zitrikoen estraktuduna, leuna da. Azala errespetatzen du, eta hidratazio- eta babes-sentsazioa ematen dio eguneroko higiean.



Dutxatu ondoren, funtsezkoa da krema hidratatzaileak ematea, ur eta lipidoen galerari aurre egiteko.

ESFOLIAZIOA

Udan, agerian uzten ditugu berriro hankak, paparra eta besoak. Zaintzeko garaia da, perfektu ager daitezten. Dieta orekatua egitea, indartzeko ariketa fisikoa egitea eta egunean bi litro ur edatea dira dagoeneko badakizkigun aholkuetako batzuk. Baina... zer iruditzen zaizu gorputzaren zainketarekin gozaten hastea? Edertasun-erritua zure momentua izango litzateke. Azal zaindu eta hidratatua gazteagoa eta osasuntsuagoa da, eta hobeto prebenitzen du azalaren biguntasuna. Azal inbidia garria edukitzeko gakoetako bat da aldizka –gutxienez astean behin– esfoliatzea.

- ✓ Komeni da zelula hilak epidermisetik kentzea; hartara, azalak errazago xurgatzen ditu ematen zaizkion printzipio aktiboak.
- ✓ Gorputzeko esfoliatzaileek larruazala leuntzen laguntzen dute; ugariago eman ukondoetan, belauetan eta orkatiletan.
- ✓ Ez ahaztu sakon hidratatzea; oinarrizko urratsa da azalaren elastikotasunari, tinkotasunari eta leuntasunari eusteko.



HUTSIK EGITEN EZ DUTENAK

Bainurako Gel Esfoliatzaile Suabeak

kiwi- eta abrikot-hazi naturalak ditu, eta larruazala garbitzen eta berritzen du, hildako zelulak desagerrarazten lagunduz. Glizerina dauka, eta azala leun uzten du dutxatu ondoren.



Aurpegiko Esfoliatzaileak larruazala garbitu eta leuntzen du, eta zelula hilak eta larruazalari argitasuna kentzen dioten bestelako ezpurutasunak kentzen laguntzen du. Abrikot-mikropikor naturalak ditu, peeling-efektu leuna egiteko; hala, ondoren ematen diren kremen emaitza areagotu egiten da.

% 100 HIDRATAZIOA

Larruazal deshidratatu bat matea da, ez oso uniformea, argirik gabea; gainera, ezkatatu egiten da, eta agerian uzten ditu zenbait arazo, hala nola biguntasuna, ildoak, metatutako koipea, zelulitisa... Hidratatu azala egunero, polita egon dadin; zuk nahi duzun formula eta testura hauta ditzakezu, baina, batez ere, ez ahaztu pauso hau.

- ✓ Lortu gorputza berehala erabat hidratatzea. **Hydra & go lozioa**, esprai-formatuari esker, praktikoa da gorputzean aplikatzeko. Lagundu zure azalari lurrin fresko eta bitalista batekin; ezin hobea da udarako.
- ✓ Osatu zure edertasun-erritua egunero masaje zirkular leun bat emanez **Aqua Gel-krema Hidratatzailearekin**. Testura ultraarina du, eta azkar xurgatzen da. Te berdearen eta pomeloaren estraktu naturalak ditu, eta horiek hidratazioa eta freskotasuna ematen diote azalari.
- ✓ **Luminosidad izeneko Gorputz-kremak** larruazala hidratatu eta elikatzen du, eta, aldi berean, leun, satinatuta eta distiratsu uzten du. Azal-mota guztietan erabil daiteke. Masaje leun batekin eman ondoren, larruazalean geratzen da haren lurrin liluragarria.



*Maisu-
ukitua*

Gogoratu crema eman aurretik zure azala esfoliatu behar duzula emaitza uniformea eta nakar-azal inbidiagarria lortzeko.



SOS! HANKA ASTUNAK?

Udan, ohikoagoa da hankak nekatuta eta astun sentitzea. Arazo horrek emakume askori eragiten die; batez ere, urtaro beroenetan. Gogoan izan zer egin behar duzun hori saihesteko edo murrizteko, eta erakutsi harro hanka arinak.

1. Egin bat infusioak eta teak hartzeko joerarekin: gorputza garbitzen, likidoak kanporatzen eta koipea erretzen laguntzen dute. Arinago sentiaraziko zaitu.
2. Erabili hotz-efektuko kremak, hala nola **Oin eta hanketarako esprai freskagarri mentolduna**; aliatu bikaina da beroak jotzen duenean eta freskotasun gehiago behar duzunean, arintzeko, gozatzeko eta biziberritzeko. Crema zabaltzeko, eman masaje leun bat goranzko mugimenduak eginez.



EDERTASUN-KEINUAK

Garbitzeko zeremonia zorrotz batekin hasten da aurpegia energia, argitasuna eta itxura ona lortzen.

Garbiketa- eta erlaxazio-urrats ezinbestekoa, gauero eta goizero errepikatu beharrekoa. **Ur-gel garbigarriaren** formula aktibo lasaigarri eta C bitaminaz aberasturik dagoenez, garbi eta garden egoteko behar duen guztia ematen dio azalari, eta krema hidratatzailea emateko prest uzten du.



ANTIAGING

Zimurren aurka borrokatzeaz gain, edo horiek prebenitzen saiatzeaz gain, azala zaintzen duten osagaiekin elikatzea da helburua.

Adinaren aurkako **Prevent Age Skin** anpoila proteoglikanodunen tratamendu intentsiboak tratamendu kosmetiko profesional baten eta serum baten eragin indartsuak konbinatzen ditu, eta elastikotasuna eta hidratazioa ematen dio aurpegiari. Formularen osagaiak:

- ✓ Proteoglikanoa, adinaren aurkako printzipio aktiboa. Ikerketek frogatu dute zelulak berritzea eta azido hialuronikoa ekoiztea sustatzen duela, eta, hala, azalaren testura hobetu eta zimurrak leuntzen direla.
- ✓ Kolagenoa; larruazalaren hidratazioa eta elastikotasuna areagotzen ditu.
- ✓ Eta landareetatik eratorritako konplexua, larruazala hidratatzeko faktore naturala indartzen duena.

Erraz ematen da: 3 edo 4 tanta dosifikatu, eta aurpegi garbi eta lehorrean eman, egunez eta/edo gauez,



masajeatuz, guztiz xurgatu arte. Anpoilan geratzen dena 48 ordu igaro baino lehen erabiltzea komeni da. Ondoren, **Sisbela Cosmetics Adinaren aurkako Crema Indargarri eta Berregituratzailea** aplikatu behar da; azala egokitu, haren eraginak indartu eta birsortzeko ahalmena areagotzen du. Sendotasuna, nutrizioa eta argitasuna aurpegian, lepoan eta bularrean, **Sisbela Cosmetics** aurpegiko kremari eta **Lepo-bularraldeetarako Crema Trinkotzaile eta Nutritiboari** esker.

Eremu horiek bereziki zaintzea komeni da, haietan antzematen baita gehien denboraren joana.



♥ ZURE NEZESERRA



PLUS BAT

Badakizu zer egin dezakeen azido hialuronikoak zure azalean? **Booster Azido Hialuroniko Kontzentratua** tratamendu intentsibo profesional baten antzekoa da, baina etxean egitekoa. Haren formulak itxura freskoa, distiratsua eta deskantsatua ematen die larruzal gogorrenei eta hidratazioa behar dutenei. PhytoCellTec™ da booster honen beste printzipio aktiboetako bat da, sagarraren zelula ametan oinarritua; zimurrak arindu egiten ditu maiz erabiliz gero. Azido hialuronikoaren molekula astunak azalaren kanpoko geruzak hidratatzen dituzte, hezetasunari eusten diote, eta itxura gardenagoa eta leunagoa ematen diote azalari. Aloe verak hidratazioa ematen du, eta pantenolak azala birsortzeko prozesua sustatzen du. Larruzal garbian ematen da, ohiko aurpegi-kremaren aurretik.



BEAUTY OHITURA BERRIAK

Klima-aldaketengatik eta poluzioagatik, azalak sufritu egiten du egunean zehar, eta lehortu egiten da; horregatik, garrantzitsua da aurpegiko **Olo-uraren** lanbroarekin suspertzea; freskotasuna eta ongizatea berehala lortzen dira.

la perfumería

AURPEGIA
ZAINZEKO
ERRITUA

Gizonezkoentzat



H

aiantzat ere garrantzitsua da larruazala zaintzeko eguneroko urratsak egitea: lehenik, garbiketa; astean behin edo bitan, esfoliazioa; eta, jakina, hidratazioa. Ezinbestekoak dira zimur sakonak, larruazaleko orbanak eta akatsak, tenkatasuna eta gorriuneak... saihesteko. Probatu ezazu gizonezkoen kosmetikako gure hautaketa, eta egin aurre udari aurpegi onarekin.



✓ **9.60 Aurpegiko Gel Garbitzaileak** eguneroko zikinkeria eta gehiegizko koipea kentzen ditu, azala freskatu eta berpizten du, eta bizarra egiteko edo ohiko tratamendu hidratatzailea jasotzeko prest uzten du.



✓ **Men Care Vital esfoliatzaileak** azalaren berezko birsorkuntza estimulatzen laguntzen du. Astean bitan edo hirutan erabiltzea komeni da, bizarra kendu aurretik ahal bada. Ikatz aktibo mikrokapsulatua duen gel-testurak eta arroka bolkanikoko partikula esfoliatzaileek ezpurutasunak eta zelula hilak desagerrarazten laguntzen dute, eta azala garbitu eta destoxikatzen dute.

*Gogoa
izan*

Eman beti crema hidratatzailea lepoan, askotan ahaztu egiten baitzaigu.



✓ Eta **Adinaren aurkako 9.60 Kremak** hidratazio eta nutrizio intentsiboa ematen du, eta sendotasun eta elastikotasun naturala itzultzen dio azalari. Txori-arrosaren oliotan eta E eta F bitaminatan aberatsa da, eta zelula-jarduera suspertzen du; hala, lagungarria da azala birsortzeko. Gainera, azala garaia baino lehen zahartzea saihesten duten babes-iragazkiak ditu.



AKTIBATU ZURE ESKUAK

Azazkal eta esku zainduek asko esaten digute pertsona bati buruz; gure aurkezpen-txartela dira, eta, horregatik, xehetasun guztiak zaindu behar ditugu.


Oinarrizko arauak argi badituzu, manikura etxean egitea oso erraza da, eta emaitzak bikainak izan daitezke.

1 LIMATU

Hautatu zuretzat praktikoena den lima. Azazkalak apurtu edo ezpaldu ez daitezen, komeni da alboetatik erdirantz limatzea, modu jarraituan, mugimendu leunekin eta beti norabide berean.

Badakizu zein den zure azazkal-estiloa?

- ✓ Karratuak hatz luzeetarako dira, forma horri esker hatzek laburragoak baitirudite.
- ✓ Biribilek gehiago estilizatzen dute, eta ez dira hain erraz hausten.
- ✓ Azazkal obalatuak edo almendra-formadunek hatzak erabat estilizatzen dituzte. Moda-modan daude. Ezinbestekoa da azazkalak luze samarrak izatea forma hori lortzeko.



Azazkal-moztekoa



Lima metalikoa



2 LEUNDU

Hurrengo pausoa azazkal-gaina leuntzea da, leungailu leun bat erabilita, porotsuago egon dadin eta esmalte-geruzak hobeto itsats daitezzen.



Azazkal-leungailua

3 KUTIKULAK TRATATU

Kutikulak biguntzeko, eman kutikulak kentzeko produktua. Hidratatu hamar minutuz, pilula eferbeszenteekin, eta, ondoren, garbitu eskuak urarekin eta xaboiarekin. Manikuraren funtsezko urratsetako bat da kutikulak tratatzea.



Kutikulak kentzeko gela



Manikurako pilula eferbeszenteak

Laranjondo-ziriak



Gomendatzen da kutikulak laranjondo-ziri batekin bultzatzea moztu aurretik, eta gehiegi ateratzen direnak bakarrik ebakitzea.

4

BABESTU ETA INDARTU

Azazkalak leundu eta prestatu ondoren, komeni da alkoholarekin edo azetona puruarekin koipegabetea, geratzen diren hondakinak garbitu eta kentzeko. Horri esker, esmalteak luzaroago iraungo du. Ondoren, **9 1ean oinarria** emango dugu; azazkal naturala babestuko du, eta esmaltea hobeto itsasten lagunduko du.



**9 1ean Oinarri
Bitaminaduna eta
Lisatzailea**



Gogortzailea



**Distira-gela,
azkar lehortzekoa**



Tanta lehortzaileak



5

ESMALTATU

Nahi izanez gero, eman kolorea zure azazkalei, bi geruza mehe emanda, tonua areagotzeko. Amaitzeko, eman **Distira-gela, azkar lehortzekoa**, esmaltea finkatzeko.

Esmaltatu perfektua lortzeko, pintzelaz hiru mugimendu besterik ez da egin behar: lehena azazkalaren erdian, kutikulatik gorantz, eta beste biak alboetan. Gogoan izan: zenbat eta gutxiago ukitu azazkala pintzelarekin, orduan eta emaitza hobea lortuko duzu.



6

ELIKATU ETA HIDRATATU

Azkenik, manikura perfektua lortzeko, elikatu azazkalak eta kutikulak egunero **Bitamina-olioarekin**; hala, elastikoagoak izango dira, eta ez dira hain hauskorak izango.

Azazkalak hausteko arrazoietakoa bat hidratazio falta izaten da. Horretaz gain, eskuak ere hidratatuko ditugu gure premietara ondoen egokitzen den krema erabilita.

Aloe verak mota guztietako larruazalak hidratatu eta gozaten ditu, eta **Orbanen aurkako kremak**, 20ko eguzki-babes faktoreari esker, prebenitu egiten ditu orbanak.



Olio bitaminaduna

ESKU-KREMA

Aloe Vera



Orbanen aurkakoa



GOGOAN IZAN

Eskuak ongi garbitu, urarekin eta xaboiarekin, edo gel hidroalkoholikoarekin. Ondoren, eman eskuetako krema hidratatzailea, azala babesteko eta deshidratazioa saihesteko.



Summer Glitter bilduma: azazkal-esmalteen 5 tonu bizi eta sandia-usaina duen olio bifasikoa.



SIRENA-efektua

Kolore-leherketa bat: urdin bizia, koral distiratsua, arrosa kartsua eta hautseztatua... Aurtengo udako manikura distiratsua eta koloretsua da. Egin bat “sirena-efektua” joerarekin, eta erakutsi azazkalak harro.

Fragrance BAR




Berezko esentzia izateak nortasuna ematen du. Oraindik zurea ezagutzen ez baduzu, ausartu zaitetz etxean lurrin-mostradore bat sortzera. Probatu egunaren arabera, nola sentitzen zaren edo sentitu nahi duzun kontuan hartuta; zure bizitzako udarik hunkigarrienera telegarraiaturko zaituzte.



Usaimena garunarekin lotuta dago, oroitzapenak sortzen diren tokian. Usain batzuek iraganarekin lotzen gaituzte. Aparteko sentiaraziko zaituzten lurrinak aurkituko dituzu.

Monogotas, akorde bakar eta gozoen hautaketa bat, egunero lurrin bat hautatzeko aukera ematen dizuna, nola sentitzen zaren kontuan hartuta. Masusta bizigarria da, banillak burua lasaitzen laguntzen du, kokoak bakea eta harmonia sortzen ditu, eta, azkenik, sagarrak estimulatu eta positibizatu egiten du.





9.60
PURE



SOPLO

SOPLO

SOPLO

SOPLO

SOPLO

SOPLO

Lastar leun bat zure azalean